

# DROGETEN

**ITTURRI**

Ermuko eta Mallabiko aldirakaria  
2024ko URRIA · 337 zenbakia



**Kaixo,  
San Martin!**

Euskal  
Birusa  
Elkartea



# Talo ikastaroa



SAN MARTIN AZOKA

Urriaren 30ean  
Malengo Elkartearen

3€  
+16 urte  
Gehienez 30 pertsona

Izen-ematea (azken eguna urriak 28)

euskalbirusa@gmail.com

☎ 688 63 28 74



San Martin Kulturata 2024

# Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, urriaren 25ean, 20:30ean

Uxue  
Alberdi



Miren  
Artetxe



Beñat  
Gaztelumendi



Aner  
Peritz



Unai  
Iturriaga



Nerea  
Ibarzabal



Gai-jartzailea:  
Eneko Abasolo  
"Abarkas"



Sarrera: 10€

Salgai Lobiako Kulturagunean,  
tickets.kutxabank.es  
webgunean eta Kutxabankeko  
orotako kuttazainetan.



Gaia: Saski-naski

## Azkena

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Azkena,  
txarrixan  
buztena!



**Euskal  
Birusa  
Elkartea**

#### ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

#### HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)  
[www.drogeteniturrri.eus](http://www.drogeteniturrri.eus)

#### ERREDAKZIO TALDEA:

Eneritz Aranburu,  
Estibalitz González,  
Nahia Ruiz Albizuri  
eta Dorleta Vidal.

#### KOORDINAZIOA

#### ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

#### AZALEKO ARGAZKIA:

Estibalitz González.

#### LAGUNTZAILEAK:

Ongarai Eskola, Patxi López,  
Valentin Mugarza, Ongarai Eskola  
eta Jabi Vidal.

#### ARGAZKIAK:

Abresueños Argitaletxea,  
Fernan Alonso, Eneritz Aranburu,  
Artarrai Mendi Taldea, Estibalitz  
González, Mikel Madarieta, Mallabiko  
Gazte Asanblada, Mallabiko Udala,  
Valentin Mugarza, Pentación, Josune  
Sagardui, Malen Suárez eta Dorleta  
Vidal.

#### PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

#### INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

#### BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto  
eta Piedi Eizagirre.

#### TIRADA:

2.425 ale.

#### ISSN:

1133-973X.

#### LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Josune Sagardui Bretón · Tenerife

# “Turismoa irla suntsitzen ari da, eta egoera jasangaitza da”

Hogeita hamar urte daramatza Ermutik kanpo Josune Sagarduik (Ermua, 1969): Alpujarran (Granada) hiru hilabete eman eta gero, Tenerifera alde egin zuen, eta bertan bizi da orduetik. Urte hauetan, irlaren bilakaeraren lekukoa izan da, eta turismoa erregulatzeko beharra azpimarratu du.

Testua **DORLETA VIDAL**

## Erabaki erraza izan zen Ermua uztea?

Bai, hasiera batean hiru hilabetetarako bakarrik joan nintzelako. Garai hartan Arrate-Amaña taldean jokatzen nuen eskubaloian, eta hura zen nire pasioa, baina 24 urte nituenean kirola egiteari utzi behar izan nion. Haize freskoaren beharra sumatu nuen orduan, eta Granadara hiru hilabete joateko aukera suertatu zitzaidan. Kontua da Granadako egonaldia bukatu zenean ez nuela nahi izan Ermura itzuli. Aurretik ezagutzen nituen Kanariar Uharteak, eta bertara joatea erabaki nuen, eguraldi onak eta hizkuntzak erakarrita neurri handi batean.

## Erraza izan zen Tenerifen lana topatzea?


Masajista aritu nintzen, sukaldari, zerbitzari... Handik urte gutxira erizaintza ikasi nuen, eta gaur egun Tenerifeko ospitale batean egiten dut lana, kirofanoan.

## Asko aldatu da Tenerife 30 urte hauetan?

Ikaragarri! Turismoa irla suntsitzen ari da! Duela urte dezente, turismoa hegoaldean zegoen, Puerto de la Cruzen eta Orotavan: Benidorm estiloko guneak ziren. Gaur egun, aldiz, atzerritarrek irla osoa erosi dute: lursailak, etxebizitzak... Horrek masifikazioa dakar zerbitzuetan (tartean osasun-zerbitzuetan) eta errepideetan; espazio naturalak desagertzen ari



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**  
Lege eta  
kontu aholkularitza  
Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com



**JULEN**  
**JULEN IZARRA  
GARRAIOAK**  
**Bidegain kalea 1  
48240 BERRIZ  
636 958 339**



**AMAIA  
HARATEGIA**  
**Bertoko Okelak**  
Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**



**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



dira; itsasoa gero eta kutsatuago dago eta sarritan hondartzan bainatzea debekatzen dute... Nazkatuta gaude, egoera jasangaitza delako, baina gobernauk ez du ezer egiten turismoa erregulatzeko. Bitartean, Kanariar Uharteetako biztanleen %38ak pobrezia larrian egoteko arriskua du: ezin dute etxebizitza bat erosi, eta familia ezberdinek etxebizitzak partekatzen dituzte, edo furgonetetan bizi dira.

#### **Pentsatu duzu inoiz irlatik joatea?**

Orain arte ez, baina azken hauteskundeak eta gero buelta batzuk eman dizkiot kontu honi, ez zaidalako batere gustatu ultra eskuinaren gorakada. Bestalde, egia da oso gustura nagoela hemen eta kanariarrak oso jatorrak direla.

#### **Zer egiten duzu aisialdian?**

Mendian ibiltzea gustatzen zait, hondartzara joan eta musika kontzertuetara.

#### **Nolako da bertako gastronomia?**

Ohikoak dira *papak*, gazta, saltsak..., eta gustuko di-

**"Tenerifeko guachincheak ezinbestean probatu behar dira"**

**"Lagunera euskalduntzat daukat neure burua, eta hemengo herritarren izaera oso gustuko dut"**



Josune Sagardui eta atzean Teide sumendia.

tudan arren, iruditzen zait bertakoek ez dutela oso osasuntsu jaten. Esango nuke hori erosketa-saskiaren prezioarekin lotuta dagoela, ondo jatea oso garestia baita hemen. Horrez gain, Tenerifen *guachincheak* daude oraindik: mahastiak dituzten zenbait etxetan eurek egindako ardoa eta janari xumea zerbitzatzen dute. Ezinbestean probatu behar dira!

#### **Eguraldiak erakarri zintuen hasieran, gustuko duzu oraindik ere?**

Bai, irlako beste bazter batzuetan ez bezala, ni bizi naizen lekuan hezetasun handia dago, euria egiten du, eta sasoi aldaketak antzeman daitezke. Euskal Herriko eguraldiarekin zerikusia dauka, eta bai, gustukoa daukat egun ere.

#### **Zerbaiten mira duzu?**

Bai: Ermuan dudan jendea, nire ahizpa, Alpujarran egin nituen lagunak, janaria... Gustatzen zait ere hangoak hona etortzea bisitan.

#### **Bizitza erdia eman duzu La Lagunan, Tenerifen. Hangoa edo hemengoa sentitzen zara?**

Neure burua *Lagunera* euskalduntzat dut. Urte asko daramatzat bertan, eta hemengo herritarren izaera daukat gustuko: Santa Cruzeko eta hegoaldeko herritarrek baino irekiagoak dira, europearragoak.

# “Bizimodu hau aukeratu nuen, eta asebeteta nago”

Jesús Cimarro Olabari · Antzerki ekoizlea



Hogeita bat urterekin joan zen Madrilera Jesús Cimarro (Ermua, 1965), eta antzerki-produkzioan ibilbide oparoa egin du ordutik: Pentación enpresa zuzentzen du, Madrilgo hiru antzerki garrantzitsuenak kudeatzen ditu, Méridako Antzerki Klasikoaren Nazioarteko Jaialdiaren zuzendaria da, kargu ezberdinak ditu zenbait elkartetan, idazlea da, irakaslea... Urriaren 10ean 'Vasco Ilustre en Madrid' saria jaso zuen, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideek haren lana eta ibilbidea gorapatu eta gero.

Testua **DORLETA VIDAL**

## **Urriaren 10ean eman zizuten 'Vasco Ilustre en Madrid' saria. Perspektiba apur batekin begiratuta...**

Oso sari garrantzitsua izan da niretzat, are gehiago kontuan izanik iaz izan zela lehen edizioa. Ohorea izan da Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek ni aukeratu izana, Madrilén egin dudán ibilbide osoari aintzatespena izan delako.

### **Zerk ezberdintzen du sari hau jaso dituzun beste sari batzuetatik?**

Nire sorterriaren eta nire jendearen errekonozimendua dela, eta hori oso hunkigarria da beti. Izan ere, saria jaso nuenean, migrazioari eta diasporari buruz hitz egin nuen: ni neu 21 urterekin heldu nintzen Madrilera, eta zerotik hasita lortu dut inperio handia sortzea, askok esaten duten bezala.

### **Saria jaso zenuenean eman zenuen hitzalditxoan, ibilbidean zehar ondoan izan dituzun kideak ere aipatu zenituen. Zein pisu izan dute zure karreran?**

Taldean lan egitea gustatu izan zait beti, eta garrantzi handia eman izan diot beti espiritu kooperatibistari, talde-espirituari, eta horretan oinarritu dut duela ia 37 urte sortu nuen enpresa. Lau mila langiletik gora pasatu dira bertatik, eta gaur egun 120 lagun egiten dute lan gurekin: hamaika produkzio ditugu, hiru antzerki kudeatzen ditugu Madrilén, Méridako An-

tzkerki Klasikoaren Nazioarteko Jaialdia zuzentzen dugu (aurten 900 pertsona izan dira bertan lanean)... Estructura hauek oso handiak dira, eta aldi berean nahiko ezezagunak: kulturaren industria estatuko Barne Produktu Gordinaren laugarren diru-iturria da eta 720.000 familia baino gehiago bizi dira horretaz.

### **Lehen pausuak Ermuan eman zenituen...**

Bai, 15 urte nituenean, Ermuko Antzerki Tailerra sortu nuen Institutuko hainbat lagunekin batera, eta hura izan zen Euskadiko lehen udal antzerki tailerra, edo lehenetarikoa, 1980an.

### **Garai hartan interpretazioaren esparruan ibili zinen?**

Ez, antolaketan aritu nintzen hasieratik: irakasleak kontratatu, negoziatu... Hiru urte geroago, Durangoko Geroa Konpainiara joan nintzen, eta hiru urte eman nituen bertan ekoizle eta kudeatzaile profesional bezala, 1983tik 1986ra. Oso ondo moldatu izan naiz beti antolaketa eta kudeaketa kontuetan eta bide horretan jardun izan dut hasieratik.

### **21 urterekin joan zinen Madrilera. Zeintzuk ziren zure ilusioak eta beldurrak?**

Herri txikitik hiriburura joaten zarenean, ilusioz eta gogoz beterik abiatzen zara, baina nolabaiteko beldurra ere baduzu, jakina. Madril oihana da, lehia bizia dago, eta aitabitxi gabe bertara joatea ez da erraza.

69 FESTIVAL  
INTERNACIONAL  
DE TEATRO CLÁSICO  
DE MÉRIDA 2023

PENTACION  
ESPECTACULOS



JAVIER NAVAL-PHOTO&DESIGN

Méridako Antzerki Klasikoaren Nazioarteko Jaialdiaren zuzendaria da Jesús Cimarro 2012az geroztik. PENTACIÓN



Urriaren 10ean jaso zuen Jesús Cimarrok 'Vasco Ilustre en Madrid' saria. PENTACIÓN

Lan asko egin behar izan nuen, baina zorionez, kultur-kudeatzaile batzuk ezagutzen nituen, Geroan lan egiten nuen sasotik. Egia da ere, garai hartan Madrilerera joaten ziren guztiak antzezle edo zuzendari zihozazela, eta ez produkzioan lan egiteko, eta horrek bereiztu izan nau beti.

**Bide horretan tematu zinen eta lekua egitea lortu zenuen...**

Bai. Gogoan daukat pisu bat alokatu nuela La Latina antzerkiaren aurrean, eta askotan ikusten nituen Lina Morganen espektakuluak ikusteko zeuden ilarak. Neure buruari esaten nion egunen batean antzerki horretan egingo nuela lana: zeinek esango zidan urte batzuk

geroago antzerki hura alokatuko nuela, eta azkenean erosiko nuela! Begira, zenbait masterretan ematen ditut klaseak, eta nire ikasleei beti esaten diet helburu bat badaukate eta gogor egiten badute lan, gehienetan lortuko dutela. Baina lan asko egin behar da, eta sakrifikatu ere.

**Madrilerara heldu eta bi urteren bueltan Pentación enpresa sortu zenuen (1988an), antzerkiaren munduko lau pertsona ospetsuekin. Esango zenuke arin topatu zenuela zure lekua oihan horretan?**

Bai, pertsona horiek eurekin lan egiteko gonbitea egin zidaten, baina hasiera guztiak dira gogorak eta zailak. Behin hasita ere, ez da erraza: estatu osoan ez daude horrenbeste enpresa 36 urte dituztenak, etenaldirik gabe, eta guk antzerkiz hornitzen ditugu estatuko areto gehienak.

**Hain gazte hasita, eta horrenbeste lan eginda, sentitzen duzu gartzaroaren zati bati uko egin diozula?**

Aukeraketa bat egiten duzunean, gauza batzuk baztertu behar dituzu beste batzuk irabazteko. Nik bizimodu hau aukeratu nuen, eta atzera begiratzen badut, oso asebeteta nago bai lan esparruan bai esparru pertsonalean ere: asko bizi izan dut, ondo bizi izan naiz... Estualdiei eta arazoei ere aurre egin behar izan diet, jakina, baina oso pertseberantea izan naiz, eta balantzea oso positiboa da.

**LA FORJA KAFETEGIA**

Zuri egokitzen den odontologia  
La odontología que se adapta a ti

Dr.ª. OLAZ GARCÍA ARREGUI (C) 1974

**PADI** 943 17 04 04  
Programa Ayuda Dental Infancia II Gobierno Vasco

San Pelayo Zaharkalea, 5 48260 Ermua (Bizkaia)

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre 20, Ermua - 943 170305

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

arral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

nitida

**T.943176075**

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

**RIF**

ITURGINTZA  
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10





Pentación enpresak produzitu zuen *El lazarillo de Tormes*' 1990an. Argazkian, ezkerretik hasia: Juan Viadas (zuzendaria), Esther Esparza (erregidorea), Rafael Álvarez "el Brujo" eta Jesús Cimarro. PENTACIÓN

### **Pertseberantzia da zure ezaugarrietako bat?**

Bai, hori da nire bertuteetako bat.

**Gaur egun bakarka zuzentzen duzu Pentación enpresa, eta beste hainbat zereginen artean, Madrilgo hiru antzerki garrantzitsuenak kudeatzen dituzu: Bellas Artes, Reina Victoria eta lehen aipatu dituzun La Latina. Azken honen jabetza lortzea pertseberantziaren emaitza izan zen?**

Bai, urtebete eman nuen Lina Morgarekin negoziatzen, eta ikasketa-prozesua izan zen. Elkarrekin afaltzen genuen astero, eta oso ondo ezagutzeko aukera izan nuen. Berak nahi zuen nik antzerkia erostea, bazekielako antzerki bezala mantenduko nuela, eta azkenean ados jarri ginin.

**Askotan hitz egiten da produkzioari buruz, baina zein lan egiten du ekoizle batek zehazki?**

Proiektuak sortu, baina ez bakarrik alde ekonomikoari dagokionez: lantalde artistikoarekin egiten dut lan, ideiak sortzen ditut, ideiak jaso... Lan hori egiteko ezinbestekoa da intuizio oso handia izatea.

**Zein leku okupatzen du egun antzerkiak zure bizitzan?**

Zati garrantzitsua. Izan ere, nire kasuan alderdi profesionala alderdi pertsonalarekin nahastu da, jende asko ezagutzeko aukera izan dudalako. Dena den, kudeatzen ditudan espazio guztiak kudeatu ahal izateko lantalde oso ona daukat inguruan, asko delegatzen dut, eta etengabe gainbegiratzen dut.

### **Errekonozitua sentitzen zara Ermuan? Jendeak zure lana ezagutzen du?**

Gazteek ez naute ezagutzen, normala denez, baina nire garaiakoek bai. Gainera, bertan bizi nintzenean geldiezina nintzen, eta era guztietako mugimenduetan eta kolektiboetan parte hartzen nuen.

**Urruti zaudela ematen duen arren, Ermura bueltatzen zara?**

Bai, urtero joaten naiz gabonetan, eta bertan daukat familia eta betiko lagunak ere: haiekin irteten naiz pote batzuk hartzera, ez ditut ohiturak galdu!

**Txikitako eta gaztetako oroitzapenen bat?**

Teodoro Zuazua eskolara igotzeaz akordatzen naiz, Ongaraiko aldapa amaigabea gora! Garai hartan ez zegoen arrapala mekanikorik! Bestalde, gztetan, jai batzordean ibili nintzen, Antzerki Jardunaldiak antolatu, *El Correo* egunkariko korrespontsala izan nintzen lau urtez...

**Ermuko txoko bat aipatzekotan?**

Valdespinako Markesaren jardina herriko lekurik politenetakoa da.

**Ermuko eskaintza kulturala erreferentea da inguruko herrien artean, eta esaten dute herriko publikoa oso beroa dela. Bazenekien?**

Bai, baneukan horren berri. Izan ere nire antzezlanak bertara eramaten ditugunean, edo nirekin lan egiten duten aktoreak bertara doazenean, hori esaten didate.

# “Gaztiok herrixen elkartu eta geure interesak garatzeko leku eta aukerak sortzeko grinak mobitzen gaitxu”

## Mallabiko Gazte asanbladak urtebete



Batzarrak astien behin egiten dabez, barixekuetan, ikasle bizitzatik etxera bueltan datozenien. Batzuk unibertsitate ikasketetan buru-belarri dabiz, beste batzuk hegalak zabaltzen batxilergo eta lanbide heziketan. Ikasleek die baina gauza bat argi badaukie, Mallabiko herrixe berpiztie da. Gorka Urbizuk *Teoria bat* abestixen dinon moduen “irtenbide bat bada izan daiteke hemen, utzi gazteak bakarrik, libre”.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

### Urtebeteko ibilbidie ein dozue honezkero, zer dala ta elkartu zineten Gazte Asanblada baten?

Mallabiko Eskolaren 50 urteurreneko ospakizunetan bertako irakasle eta hainbat guraso buru-belarri hasi zientien konturetu ginen gure adineko jenterik ez zala animau. Orduen hasi ginen 15-20 urte bittarteko hainbat gazte gure ekarpena zein izen leixen berbetan eta Gazte Asanblada sortzie erabaki gendun.

### Zein izen da ba zuen ekarpena urtebete honetan?

Gure ikuspuntue emon dogu herrixen eitzen dien hainbat ekintzen inguruen, jai batzorde bat sortzie eskatu geuntzen Udalai eta halan diherdu lanien. Hainbat ekintzatan parte hartu eta gure ingurukuengana hurre-ratzen hasi gara kartelak ipiniz eta sare sozialetan gure lana elkarbanatuz. Urriko jaixetan, Gabonetako egitarauen, karnabaletan, Martxoak 8, Azaroak 25, Maiatzak 17 eta abar aldarrikatzen ahalegintzen gara. Azterketak euskaraz izateko elkarretaratzeak eta jai eta kultur ar-luen gure ikuspuntue emoten ahalegintzen gara. Aurtengo Andra Mari jaixetan kuadrilen arteko jolasak



antolatu doguz eta oso harrera ona euki dabe jentianaldetik. Gure beste eskaera bat herri-



ko plazie berpiztie da, horretarako adibidez, jaixetako kontzertuek bertan eitxie eskatzen dogu.

### Eta aurtengo Urriko jaixetan, aspaldi ospatzen ez zan Elegante Egune antolatu dozue.

Bai, guk zuzenien ez dogu inoz ospatu Elegante Egunik, gurasuek eta gu baino nagusixuek bai, ze azkena 2017-2018 inguru horretan egin zan eta gerora pandemia etorri zan. Aurtengo Gazte Asanbladiaren sare sozialetatik galdetu gendun ia berreskuratuko ete gendun Miss eta Mister “lehiaketa” eta % 100eko erantzune baietza izen zan. Politxe beintxantzen jakun berreskuratzie eta ilusinue eitzen deusku dotore jastziek. Arkondarak, korbatak, lentejueladun soineko eta makilaje jantzi-

**"Beste herri batzutan lagunek eta kuadrilak daukeguzenez, gure herrixe hilde geratzen da"**

**"Ingurukuengana hurreratzen hasi gara kartelak ipiniz eta sare sozialetan gure lana elkarbanatuz"**

txe urtetzera animaten dogu jentie. Danok daukeguz amak eta aitak ezkontzaren batera eruendako jantzi dotoriek ganbaran edo trastelekuen gordeta.

### **Zelan izengo da boto emotie?**

Herriko tabernan eta soziedadien ipiniko die boto paperak eta kutxak. Pertsona bakotxak boto bat emon ahal izengo dau, ez gehixa, beraz tranpaik ein barik, jeje! Elegante eguneko famili argazkixe parkien atarako dogu 20:30xetan eta gabeko 12xetan 2024ko Miss eta Mister Mallabia sarixek banatuko die.

### **Barixekuen hori, eta zapatuen bazkarixe be antolatu dozue, jentie animau da?**

Bai, oso pozik gauz tiket danak saldu dielako, oso harrrera ona euki dau. Adin desberdinetako jentiek erosi dauz tiketak. Urrixan 19xen amaitxu zien hasieran atara genduzan 84 baina jentie hainbarik geratu zan eta beste 20 atara genduzan. Bazkalostien bingo musikatua eukiko dogu gainera, oso dibertigarrixo izengo da fijo! Eta gero Uk03 txarangie kalietan ziher kontzertuek hasi arte.

### **Kultura eta jai arluen lanien diherduzue, baina gure herriko egunero-kotasune zelakue da Gazte Asanbladuan ikuspuntutik?**

Gazte Asanblada 15 eta 20 urte bitxarteko jentiek osatzen dogu. Horrek esan nahi dau astien ziher herrixen lehen baino gitxiago gabizela, gehixenak unibertsitate ikasketak



diela eta, herritxik kanpo bizi garelako astelehenetik barixekure. Baina halan eta guzti gune egoki baten bihera ikusten dogu. Baitte be guretzako erakargarri litzakezan ekintzak eta abar sortzie be. Herrixen bertan urten eta bizitzie herrixen eitxie ahalbidetzen dabenak, inguruko beste herri batzuetara juen biherrik barik.

### **Eskolatik 12 urtekin Berrizera jutien die gehixenak ikasketak jarraitzera...**

Eta horrek eragin zuzena dauke gaztiak herrixen gitxia ibiltxiaz. Beste herri batzutan lagunek eta kuadrilak daukeguzenez, hara juteko joerie daukau eta gure herrixe hilde geratzen da. Gazte Asanbladatik herriko gazte danok edo ahalik eta gehixenak batzie eta danon ikuspuntutiek ezautzie da helburue. Batez be gaztiok herrixen elkartu eta geure interesak garatzeko leku eta aukerak sortzie.

**HERGA**  
taberna

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**  
**PALACIOS SM**  
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com  
**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

## 12 MALLABIAN ZER?

### MALLABIKO URRIKO JAIK

#### URRIAK 25, ostirala

**16:30** Buruhandiak, eskolatik parkera.

**17:00** Txondor Herri Kirol taldearen erakustaldia parkean.

**18:30** Txupinazoa: Malle Euskal Pilota Kluba udaletxeko balkoitik. Ondoren, Elektrokela elektrotxaranga.

**18:30-21:30** III. Kick Boxing-boxeo gaua herriko frontoian. Sarrera: 15 €.

**19:00** Elizpeko pilota txapelketaren finala elizpean.

**20:15** Musikabia taldea parkean.

**20:30** Hanburgesa pintxoak parkean. Tiketak: 1 €

**21:00-21:30** Dantza: "Aske izan nahi dut eta aske zurekin, eta honek?".

**21:30** AIAMA eta Beranduegi taldeak, parkean.



#### URRIAK 26, larunbata

**9:00** Frontenis maratokia (bikoteka) herriko frontoian.

**11:30** Duatloi txikia herri barruko zirkuituan.

**12:00-15:00** Mallabiko VII. Arda Ferixie probalekuan. Sarrera: 10 €.

**14:30** Herri bazkaria eta bingo musikatua parkean.

**16:00-19:00** Jokai, euskal mitologian oinarritutako jolasak umeentzat plazan, euria bada elizpean.

**18:00** Kale animazioa Uk03 txarangarekin.

**22:30** Kontzertua parkean: Dupla, Unidad Alavesa eta Ezpalak. Ondoren, DJ Marrazo Herrikoko soziedadean.

#### URRIAK 27, igandea

**9:00** Frontenis maratokia (bakarka) eskolan.

**10:00-14:00** III. Autoen Slaloma Goitondo Beheko Lau industrialdean.

**16:30** Kidam magoa umeentzat probalekuan. Ondoren, txokolatada.

**17:00** Mus txapelketa Kontzejuzarrean.

#### URRIAK 28, astelehena (GAU BELTZA)

**19:00** Hitzaldia: "Heriotzak bizitzen irakatsi dit" Kontzejuzarrean. Pello Mugarza eta Irene Sarrionandia.

#### URRIAK 30, asteazkena (GAU BELTZA)

Oihana Etxegibel ipuin kontalaria, "Xanduli-manduli kikirriki ikarari ezin eutsi!" liburutegian.

**17:00:** HH 3-4-5 eta **18:00:** 1.mailatik gora.

#### URRIAK 31, osteguna (GAU BELTZA)

**16:30** Ginkana, Kontzejuzarrean hasita 1. mailatik gorakoentzat.

**18:00** Kalabazak hustu; aurpegi eta kareta margoketa Kontzejuzarrean. Ondoren, Photocall-a plazan

**19:00** Iluntasuna piztu...

ekitaldia! plazan. Ondoren, herriitik kantu erronda.

Bukatzeko: Txorizo pintxoak eta Takittorekin musika.

\* Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak parkean egingo dira.



**Ferreteria ANBOTO**  
Burdindegi

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25  
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Bits+denda Tailor proptea Erloju+denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak  
beveizten gaituzte

San Pelayo zeharbidua 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Asteagunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 943030527

**Torrealdy**

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

**Plan B**

Coffee Lounge Gin & Beer

## Mallabiko Udalak bost desfibriladore jarriko ditu

Mallabiko Udalak bost desfibriladore ipiniko ditu herriko auzo ezberdinetan: Areition (zabor bilketarako gunearen ondoan), Zengotitan (labade-roaren ondoan), Goitan (elkartearen ondoan), Berano-Arandoñon (Hambre tabernaren ondoan) eta Gerean (zabor bilketarako gunearen ondoan). Horrekin batera, auzo horietan bizi diren bizpahiru lagunek ikastaro bat egin beharko dute, desfibriladoreak erabiltzen ikasteko eta gainontzeko auzokideentzako erreferente izateko. "Datorren astean ekingo diegu auzo-batzarrei —azaldu du Mallabiko alkatea den Igor Aguirrek—, eta bertan boluntarioak eskatuko ditugu". Mallabiko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren bitartez erosi ditu bost desfibriladoreak, eta horien instalazioa eta bi urteko mantenuaren prezioa 6.000 eurokoa da. Orain arte desfibriladore bakarra egon da Mallabian (udaletxearen ate ondoan), eta erosiko diren beste bost horiei esker zerbitzua eman ahal izango da bai herrigunean bai auzoetako bizilagunei.




## Sarbide berria egingo da Hambretik Berano eta Arandoño auzoetara joateko

Mallabiko Udalak sarbide berria egiten dihardu Hambretik Arandoño eta Berano Nagusi auzoetara joateko, "gaur egun daudenak oso arriskutsuak direlako", azaldu dute arduradunek. Sarbide berria Hambre taberna eta Eguzki Alde jatetxearen artean eraikiko da, eta bertatik sartuta, metro batzuk egin eta gero, bi errepide eraikiko dira: bat Arandoño auzora joateko, eta bestea Beranora. Errepideko lan hauen baitan, San Pedrorra joateko sarrera-irteera ere hobetuko da, eta segurtasun elementuak jarriko zaizkio. Azkenik, Orbea enpresaren inguruan dagoen maldatxoari altuera kenduko zaio, bi metro hain zuzen ere, inguru horretarako segurtasuna handitzeko. Lanak bukatuta-



koan, autobus geltokia eta zebra bideak eraikiko dira. Obra honen aurrekontua 4.000.000 eurokoa da, eta diru kopuru horretatik Bizkaiko Foru Aldundiak 3.500.000 euro jarriko ditu eta Mallabiko Udalak 500.000 euro. Obrak martxan daude eta 24 hilabete iraungo dute.



**Jon Albizu**  
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Tel.: 943 174 505

**Trastelekuak partikularrentzat**



**Biltegiak enpresentzat**

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua  
621 325 477 / info@lekubox.com  
www.lekubox.com



**Horacio Decoración**  
TAPIERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE



VI Centenario 10 · Ermua  
943 03 15 80 / 688 61 06 38  
www.dghoraciodecoracion.com





Errekalde baserria.  
Argazkilaria: Fernan Alonso.

## Artarrai Mendi Taldeak argazki lehiaketaren irabazleak aukeratu ditu



Artarrai Mendi Taldeak XVI. Lau Haizetara Argazki Lehiaketa antolatu du aurten, eta urriaren 22an irabazleen izenak ezagutzera eman ditu. Lehen saria (75 €), Oier Viterik irabazi du, Urko mendian ateratako argazkiari esker (ondoko irudian). Bigarren saria (55 €), Koldo Aranberriak irabazi du, Jordaniako Wadi Rum basamortuan ateratako argazki batekin. Azkenik,

hirugarren saria (40 €) argazki guztien artean zozketatu da, eta Amaia Sangronizi egokitu zaio saria, Montenegroko Ropojansko jezero lakuan ateratako argazkia bidali eta gero. Antolatzaileek Asier Casasen laguntza eskertu dute, epaile lanak egin baititu.

## Txabi Arnalek bakardadea eta galera lantzen ditu bere azken ipuinean

*Doña Olimpia y el canario* da Txabi Arnal idazle ermuarrak kaleratu duen azken album ilustratua, eta haren orrietan bakardadea, galera, eta maitasunak eta musikak sendatzeko duten ahalmena jasotzen dira. Arnalek sortutako istorioarekin batera, Julio Antonio Blasco ilustratzaile valentziarraren marrazkiak ikus daitezke, eta Abresueños argitaletxaren esanetan, irudi hauek "narrazioa modu bikainean osatzen dute". Liburuaren *booktrailer* irakurteko, joan YouTube-bera eta liburuaren izenburua idatzi.



Doña Olimpia y el canario da Txabi Arnal idazle ermuarrak kaleratu duen azken album ilustratua, eta haren orrietan bakardadea, galera, eta maitasunak eta musikak sendatzeko duten ahalmena jasotzen dira. Arnalek sortutako istorioarekin batera, Julio Antonio Blasco ilustratzaile valentziarraren marrazkiak ikus daitezke, eta Abresueños argitaletxaren esanetan, irudi hauek "narrazioa modu bikainean osatzen dute". Liburuaren *booktrailer* irakurteko, joan YouTube-bera eta liburuaren izenburua idatzi.

DEBABARENA

# Tripon tziak

KLUB GASTRONOMIKOA

**Erreserbatu zure  
bisita gidatua eta  
Tripon tziak menua!**

Azaroaren 8tik abenduaren 1era

**Menua 35€**

bez barne










## Jolasgaraia birmoldatzen dihargu Ongarai Eskolan



Ongarai Eskola-ko jolas-orduan ematen diren jolas praktikak eta jarduerak aberasteko, jolas-orduko saioen moldaketa egitea erabaki dugu Ongarai Eskola-ko ikasleok eta irakasleok. Gure

eskolan ere, haur fisikoki aktiboek eta indartsuek okupatu ohi dute eskolako jolastokien erdigunea, gehienak mutiak. Neskek, ordea, ez dute ohiturarik erdigunea hartzeko, erdigunean futbol-zelaia baitago. Hori ekiditeko, futbola jolastokiko erdigunetik atera eta beste jolas zein kirol desberdinak praktikan jartzen hasi gara.

Horretarako, 6. mailako ikasleen laguntzaz, aste bakoitzeko kirol bat aukeratzen dugu: badmintona, saskibaloia, hockeya, esku-pilota... Horrez gain, bi jolas: armiarma, stop, banpiroa, zelai erreka, boloak... Eta 6. mailako ikasleak jolas arauak azaltzeaz eta dinamizatzeaz arduratzen dira.



Esan beharra dago, momentuz harrera ona izan duen moldaketa izan dela eta ikasleak gustura parte hartzen ari direla jarduera desberdinetan.

## Jantoki-orduko aisialdian ekimen berriak burutuko dira



Ikasturtea hasi da eta horrekin batera jantokia ere. Eguerdiro, bi orduko tarte izaten dute ikasleek

eta, bazkaltzeaz gain, aisialdirako denbora mordo da gelditzen zaie oraindik ere. Egun batzuetan, kanpoan jolasean ibiltzen dira; euria egiten duenean, aldiz, gimnasioan, marrazkiak egiten edo pelikularen bat ikusten. Baina aurten, ekimen berri bat martxan jarri dugu: astean behin, 3. zikloko ikasle boluntarioak Haur Hezkuntzako patioara joaten dira umeekin jolas desberdinak egitera. Orain arte jarduera horrek arrakasta izugarria izan du. Ikasle nagusiak baliagarriak sentitzen dira: txikiekin pazientzia izaten, bere premietara egokitzen eta euskaraz hitz egiten. Bestalde, txikiak pozak zorutzen daude eskaintzen zaizkien jolasekin eta arretarekin.





**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia




**ZERMIK INGENIERIA S.L.** mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen inženiaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



~~h a r i a n~~

# Indar kontutan parez pare



## **KARMELE GISASOLA HERRI KIROLARIA ETA XABI OSA ATLETA EGOKITUA**

**Mallabiko Zelai landetxean batu ditugu Karmele Gisasola Zenikazelaia eta Xabi Osa Mendes herri-kirolez eta crossfitaz berba egiteko. Ez zuten hasiera errazik izan biek bietara ere, baina biek ezagutu dute loria nork berean, eta gaur erreferente dira askorentzat.**

Testua: Ainar Argoitia

Argazkiak: Asier Orbea

Elkarrizketa osoaren bideoa ikusgai eskualdeko tokiko komunikabideen webguneetan

**ARGITARATZAILEAK**

**ek!**

Eibarko ...eta kitto!  
Euskara Elkarteko  
hedabidea

**dkt**


Debabarreneko  
Komunikazio  
Taldea

**E**uria ari du goian behean Mallabian, eta zelaitarrek etxe ondoan duten harritikian babestu gara solaserako. Metro koadro gutxiko espazioan dozenaka harri daude ertzetan pilatuta, eta hiruzpalau txaleko zintzilik. Lanerako tokia da. Bi leiho luzexkek zelaira ematen dute, eta etxeko behiak ikus daitezke larrean, hausnarrean. Barruan bestelako hausnarra darabilte gure bi protagonistek, parez pare jarrita.


**Emakumea izateagatik edo gorputz normatiboa ez izateagatik, ezberdinak zineten askoren begietara plazan agertu zinetenean. Nola oroitzen dituzue hasiera haiek?**

**Karmele G.:** Beti kontaktzen dut aitak hogeitau urte egin zituela plazarik plaza eta ez zuela emakume batekin partekatu plazarik, urte askotan ehun erakustalditik gora egin zituen arren. Hori oso gogorra da. Esan beharra daukat Miren Urkiola hasita zegoela harri-jasotzen, baina entzuten ziren komentarioak ere ez ziren beti onak. Ezohiko zerbait zen emakume bat ikustea indar kontutan. Gure etxean, neba eta lehengusua hiruzpalau bat urterekin hasi ziren plazan aizkoran eta harri-jasotzen, baina nik 17 urterekin egin nuen saltoa, lehengusinarekin. Aitak animatu gintuen trontzan hasiera. Ordura arte beti izan nintzen traketsa kirolerako; beti izan nituen behar baino kilo gehiago. Gimnasia beti nintzen azkena gelditzen zena eta urte askoan pentsatu nuen ez nuela kirolerako balio, harik eta gustukoa topatu nuen arte.

**Xabi O.:** Gustuko duguna topatu eta orduak sartu behar dira; eta ez nabarmentzeko, baizik eta erakusteko geure buruei gai garesta eta lortu dezakegula nahi duguna. Begira, ni hondoa jota eta gauza oso negatiboetan pentsatzen nengoan ispilu aurrean jarri eta buruak klik egin zidanean. 'Edo aldatzen duzu zerbait edo batek daki zer gertatu daitekeen hemen', pentsatu nuen. Askok sufritu nuen umetan. Lotsa sentitzen nuen nire gorputzaz eta ez nuen nahi izaten kalera irteterik, ez neukalako besteen begiradei aurre egiteko gogorik. Irain asko egiten zizkidaten eta beti saiitzen nintzen besoa ezkutatzeko. Zorionez esan dezaket lagunek eta etxekoek asko lagundu nindutela. Lagunek sekula ez zidaten galdetu ea bizikletan ibili nintekeen. 'Xabi, goazen bizikletan ibiltzera', esaten zidaten, baina askotan komentario negatiboek eragin



handiagoa izaten dute. Egoera horretan neure bertsiorik onena zein izango zen imajinatzen hasi nintzen, eta Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia. Garai zailak izan ziren. Ohitura txarrak hartuta neuzkan. Jan ere edozer egiten nuen lokalera jaisten nintzenean, baina ispilu aurrean jarri nintzen gau hartan bertan entsalada afaldu nuen eta hurrengo egunean korrika egitera irten nintzen. Hor hasi zen aldaketa, eta kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeen arren, nire gorputza ez zela oztopo ezertarako. Gero, Ameriketako Estatu Batuetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen. Eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu. Erabaki nuen ez nintzela entrenatuko gorputz jakin bat izateko, baizik eta indartsu sentitzeko. Strongman egiten hasi nintzen [herri kirolen bertsio amerikarra] eta esango nuke hainbeste jende ezberdin ikustek engantxatu egin ninduela.



**"Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia"**

**"Kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeela, baina nire gorputza ez zela oztopo ezertarako"**

**"AEBetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen, eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu"**

XABI OSA

**Adinez zaharragoa izan arren, etxeko mutilak baino dezentez geroago hasi zinen plazan eta etxekoek zerabilten ezizena hartu barik. Denontzat da desiragarri norbere izen-abizenez deitzea, baina zuenean Zelai goitizenak bazuen entzute bat. Kontzienteki baztertu zenuen?**

K.G.: Ez. Lehen, euskaldunek normalean baserri izena hartzen zuten ezizentzat. Gurean, aitak, bi anaietan zaharrenak, Zelai hartu zuen; osabak, Zelai II.a; lehengusu Ioritzek Zelai III.a, eta gure nebak, Zelai IV.a. Akordatzan naiz Ermuko Santixau jaietan denok irten ginela plazara. Aurkeztu zituen esatariak gure etxeko gizonezkoak izen-abizenez eta Zelai ezizenez, gauza bera egin zuen gero Bihurri aita-seeekin, eta nire txanda iritsita, esan zuen: 'Eta Iparraldeko jokoetan, Karmele Gisasola'. Ni ez nintzen ohartu ere egin; hala zen. Bukatu zen erakustaldia eta etorri zitzaidan aurkezlea esanez pena hartu zuela etxeko guztiak Zelaitartzat aurkeztuta eta ni izen-abizenez. Lasai egoteko erantzun nion, ni jolasean ari nintzela-eta. Baina iritsi zen eguna nire nebak eta lehengusuak baino erakustaldi gehiago egiten nituela, txapelketa gehiago jokatzan nituela eta orduan esan nien etxeko mutilei aldatu egin behar genuela. Dena den, herri-kiroletan esango nuke ez dagoela ezizena duen beste emakumerik.

**Nola hasi zineten crossfiten?**

X.O.: Ameriketan ezagutu nuen crossfita, baina han oso garestia zen, eta Euskal Herrira itzuli eta gerora hasi nintzen. Hona etorri nintzenezan strongman egiten jarraitu nuen hasieran, baina ez nuen topatzen leku aproposik strongeko ariketak egiteko crossfiten eman nuen izena.

K.G.: Akordatzan naiz Xabik [Osa] 2019an Anboto Crossfit zabaldu zuenean, ikusten nituela ikaskide izandako batzuk crossfitera joaten eta erabaki nuen izena ematea, harri-jasotzen aitarekin ibili arren, ez neukalako maisurik esateko sentadillak eta bestelakoak zelan egin behar ziren zuzen. Harria jasotzen ikusten dugunean norbait pentsatzen dugu indar handia izan behar duela derrigor, baina hemen dena ez da indarra. Da indarra, da teknika, da gure nortasuna eta da hauspoa. Harriak ere ezberdinak dira, eta harria jasotzeko moduak ere bai. Niri oso lagungarria egin zitzaidan crossfita, indarra egiteko. Jendeak uste du oso kaltegarria dela, baina gezurra da. Lesionatu izan banaiz, ez da

crossfitagatik izan; baizik eta, batzuetan, kontrakoagatik, ez joateagatik.

## Harri-jasotzaileen etxean nola hartu zuten crossfiten izena ematea?

**K.G.:** Hasieran ez nion ezer esan aitari. Probatzera joan nintzen. Mugikortasun handirik ez neukan eta gaur baino hamar kilo gehiago nintzen. 'Nora ostia etorri naiz!', pentsatzen nuen. Uste dut box batera sartzen garenguztiok lehenengo sentitzen duguna lotsa dela. Izerditan hasten nintzen ezertan hasi orduko, baina probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan. Kezkatzen ninduen etxean nola esan. Izan ere, gure aitaren buruan sentadillak, pisu hilak eta karga hartzeak egitea zen entrenatzea, eta etxean bageneukan material guztia. Eta etxean entrenatzen ari ginen egun batean, aitak, harrিতa moduan, bota zidan: 'Ene, indarra egin duzu!'. Orduantxe esan nion crossfiten hasi nintzela. Crossfita oso lagungarria izan zitzaidan bereziki pentatloia prestatzeko. Harri-jasotzen, gaur, ez dira sasoi bateko hamar minutuko txandak-eta egiten. Oso lan motzak izaten dira, baina pentatloian harri-jasotzen, txingetan, aizkoran eta korrika egin behar genuen eta lan luzeago baterako prestatzeko eta arnasa egiteko oso ondo etorri zitzaidan crossfit egitea.

## Gorputz normatiboak, kanon estetikoak... Erakartzen du crossfitak gero eta jende gehiago, baina errezelo batzuk sortu ere bai beste askorengan.

**X.O.:** Gertatu zait herri-kiroletan eta baita crossfiten ere. Etorri izan zaizkit emakumeak boxera, eta esan: nik ez dut gorputz gihartsu horiek izaterik nahi.

**K.G.:** Akordatzen naiz gimnasioan halterofilia egiten ari ginen batean nola esan zenigun lasai egoteko, barra bat jasotzearen ez ginela koadratuak jarriko-eta. Astean bi aldiz joanda ezinezkoa zela hori, baina indar ariketak egitea oso lagungarria izango zitzaigula gure eguneroko lanetarako. Beste hori ere bada. Niri gustatzen zaizkit emakume gorputz gihartsuak ere, baina jende askori oraindik zatarrak iruditzen zaizkio. Eta ulertu dezaket jende bati ez gustatzea, baina ulertu dezatela haiek beste batzuei gustatzen zaizkigula eta gainera ez dela ezer txarra.

**X.O.:** Bai, jakina. Ohartu behar gara gorputzen inguruko komentarioek min egin dezaketela. Dena



den, komentario horiek askotan etxeoengandik etortzen dira, amengandik-eta, lehen ez zirelako halako emakume gorputzak ikusten. Iruditzen zait asko ari garela aurreratzen, gero eta neska gehiagok uste dutelako gorputz indartsua izatea osasungarria dela eta gainera erakargarri ere izan daitekeela. Crossfiten egiten ditugun ariketek eguneroko mugimenduetarako prestatzen dute gorputza. Sentadilla bat eseri eta altxatzea da bizitzan. Pisu hila jasotzea erosketak poltsak altxatzean egiten dugun mugimendua da, eta nik neuk behintzat hilkutxan sartzen nauten eguneraino nahi nuke erosketak jasotzeko gai izatea. Nire ustez crossfita izan behar da zerbait jendeari lagunduko diona. Ikusten dudana da, baina, jende asko gehiegi obsesionatzen dela.

**K.G.:** Esan eta esan ari zaizkigu, batez ere emakumeok indarra landu beharko genukeela menopausia aurreko urteetan. Egia da, baina, ni neu ere ez nagoela ohituta 50 urteko emakumeak gimnasia joaten ikusten. Baina indarra landuta osasuntsuago eta hobeto sentituko gara eta ariketa fisikoa taldean egiteak buruko karga arintzen ere lagunduko digu. Akordatzen naiz beste entrenatzaile batek ere nola esan zidan behin ariketa eszentrikoak eta gomekin egiten ziren ariketak txorradak zirela, baina ez da egia. Gauza asko landu daitezke eta edozeinek egin ditzake ariketa horiek.



**"Nora ostia etorri naiz!",  
pentsatzen nuen. Uste dut  
box batera sartzen garen guztiok  
lehenengo sentitzen duguna lotsa  
dela. Izerditan hasten nintzen  
ezertan hasi orduko, baina  
probatu nuen eta asko gustatu  
zitzaidan"**

**"Ulertu dezaket jende bati  
ez gustatzea emakume gorputz  
gihartsuak, baina ulertu dezatela  
haiek beste batzuei gustatzen  
zaizkigula eta gainera ez dela  
ezer txarra"**

KARMELE GISASOLA

### **Txapelketetan gero eta emakume gehiago ikusten dira, batean zein bestean.**

**X.O.:** Bai, eta bai herri-kiroletan eta bai crossfiten ere nik gehiago gozatzen dut emakumeak ikusten pisua altxatzen gizonak ikusten baino. Iruditzen zait aukerak falta izan dituztela, baina aukera eman zaienean erakusten ari direla oso gai direla indar kirolak egiteko.

**K.G.:** Bai, niretzako oso polita da, urte luzez ikusi bakoa izan delako eta erakutsi dugulako ikuskizun politikak eskaini ditzakegula. Harri-jasotzen, emakumezkoetan, markarik handiena Idoia Etxeberriak dauka. Bi eskurekin 163 kiloko harria dauka altxatuta, eta esku bakarrarekin 118koa. 16 urterekin, Idoiak, 120 kiloko errektangularra jaso zuen. Iaz, Olaia Esnaolak, 16 urterekin, 125 kilokoa jaso zuen, eta aurtan, Maddi Gesalagak berdindu egin du marka, baina 15 urterekin. Ni horrek izugarri pozten nau.

### **Nola entrenatzen zarete?**

**K.G.:** Gure aita, bere sasoiaren, astean hiru bat aldiz Oizera igotzen zen etxetik hauspoa egitera, eta beste hiru bat aldiz Iruñeko gimnasio batera joaten zen urtarriletik martxora, indarra egiteko. Lurrean amaitzen zuela esaten du. Gertatzen dena da guk herri-kiroletan ez daukagula egutegirik. Nik urtarrilaren 1ean ez dut jakitzen zenbat txapelketa izango diren, gonbidatuko ote nauten, noiz izango diren eta ezer ez, eta beraz, ez dakit noiz egon behar naizen indarraldi betean denboraldian zehar. Eta denok dakigu ezin dela urte guztian egon sasoirik onenean.

**X.O.:** Horrek asko zailtzen du, bai. Kirolean, txapelketa asko izateak interferentziak sortzen ditu entrenamenduan. Niri lehiatzea ez zait asko gustatzen; gehiago gustatzen zait entrenatzea, nire buruaren kontra egitea... Urtean bi txapelketa jokatzeko ditut. Irailtik martxora arte karga lantzen dut, zure aitak egiten zuena. Astean sei egunez entrenatzen naiz, lauzpabost ordu egunean. Gogorra da, eta jakina, iristen da larunbata eta ez dut beste ezertarako gogorik izaten. Sakrifizio handia eskatzen du, bai gurea, kirolariona, eta baita ingurukoena ere, haiek ere ordaindu behar izaten dutelako, entrenatzen ez gauden denbora deskantsurako behar dugulako eta bete behar dugulako hori, ahal izanez gero jakina.

**"Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago"**

KARMELE GISASOLA



Niri gertatzen zaidana da kirolari profesionala izan arren lan egin behar dudala bizitzeko, hemen babeslerik ezean ez dagoelako dirurik.

K.G.: Bai, ni ere berdin; biok dauzkagu gure negozioak, gure kiroletik ezin delako bizi. Udan oso txarto egon naiz ni gerritik; ez nekien zer zen. Fisioterapeutarenera joaten nintzen, ipintzen ninduen ondo, baina entrenatzen hasi eta negarrez amaitzen nuen, minez. Inori ez dizkiot opa udan pasatu ditudan minak. Askotan gelditu naiz plazan ere azkeneko harria jaso ezinda, minaren minez, negarrez. Erakustaldia amaitu domeka iluntzez, deitu osteopatarri urgentziaz zaindu nazan, hasi berriro, eta ezin. Hala, banan-banan deitu behar izan nien antolatzaile guztiei udako bi hilabeteetarako lotuta neuzkan erakustaldi guztietarako ezetza eman eta ordezkoak topatzeko.

### **Eta halakoetan nondik ateratzen da entrenatzeko indarra?**

K.G.: Hemen, harritokian, aita eta neu egoten gara bakarrik eta askotan motibazioa falta izaten zait entrenatzen hasteko. Eguraldi txarra egiten duenean, hilekoarekin nagoenean... dena txarra ikusten dudana egunetan oso gogorra egiten zait bakarrik aritzea. Baina talde baten izena ematen duzunean, burua behartuta sentitzen duzu joatera, aktibatzen zaituzte eta ingurukoek asko laguntzen dizute. Hori dauka crossfitak honek ez daukana, edo nik hemen ez daukadana, badirelako herri-kiroletan beste batzuk taldean entrenatzen direnak. Ni harritokian lehiatu egiten naiz eta ez nintzateke

kapaz beste lehiakide batekin batera entrenatzeko, joango nintzatekeelako nire onena ematera barik bera gaintzera. Ikasketa prozesu bat da hori ere, eta ikasi egin beharko nuke.

X.O.: Kirolari profesional bat naiz, mundu mailan lehiatzen dena, eta entrenatzaileak jartzen didan dena egin behar izaten dut Atik Zra.

### **Nola daramazue presioaren kontua?**

X.O.: Txapelketetan hasi nintzenean irabaztea besterik ez neukan buruan eta ikaragarri zaintzen eta prestatzen nintzen, baina iristen zen eguna eta erlojuan atzera kontaketa hasten zenean blokeatu egiten nintzen. Antsietateak hartzen ninduen, ahoa sikatzen zitzaidan eta ezin izaten nintzen zentratu egin beharreko mugimenduetan. Eta horregatik hasi nintzen kirol psikologo batera joaten. Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua. Esango nuke jokatu ditudan lehenengo bi munduko txapelketetara ezin prestatuago iritsi nintzela, baina buruak huts egin zidala.

K.G.: Bai, buruko osasuna oso garrantzitsua da. Ondo zaudenean, ez duzu premiarik sentitzen, baina uste dut denok joan beharko ginategela halakotara. Azkeneko lau urteetako Euskal Herriko txapeladuna naiz ni harri-jasotzen, bosgarren txapela jokatu dut orain, eta irabazi egin nahi dut, baina lesio batetik



## "Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua"

XABI OSA

nator eta horixe ari naiz bereziki lantzen. Neure buruari esaten diot ahal dudan guztia egingo dudala, baina ez dela ezer pasatzen azkena geratuta ere, neurea egiten badut. Baina teoria oso polita da, eta praktika, berriz, kaka bat.

**X.O.:** Niri ere asko kostatu zitzaidan, baina ikasi nuen. Lehen, asko inporta zitzaidan kanpoko jendeak nitaz pentsatzen zuenak, gertukoei huts egingo ote nien..., baina konturatu naiz maite nauen jendeak berdin-berdin maiteko nauela, izan txapeldun edo azken. lazko txapelketarako entrenatu nintzen, baina ez dut uste aurrekoetako sasoi berean nengoenik, lesio batetik ere banentorrelako, baina guk gurea egin genuen, hirugarren gelditu ginen eta pozik, guretzako jardun ginelako eta ez beste jende hori gustura geratu zedin. Uste dut gehiegizko presioa jartzen diogula kirolariok geure buruei.

**K.G.:** Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago. Eta zoriondu behar ditugu, lehiakiderik gabe txapelketarik ere ez legokeelako.

### 'Ginen'. Plurala erabili duzu, lehiatu bakarka lehiatu zinenean, Xabi.

**X.O.:** Jakina, bakarka arituta ere, kirolari guztien atzean dagoelako talde bat. Gure ahulguneak hobetzen

ematen dugu guk denbora asko, nahi eta ezin horretan, eta frustrazio handiak sortzen ditu horrek, ingurukoek ordaintzen dituztenak. Horregatik nire lorpenez ari naizenean beti pluralean hitz egiten dut.

Karmele, askotan galdetu izan didaten galdera bat egin nahi dizut: zer jaten duen kirolari profesional batek, askotan jendeak uste duelako nik letxuga, brokolia eta oilasko bularra bakarrik jaten ditudala.

**K.G.:** Gure aitak, entrenatzera Oiz mendira igotzen zenean, bueltan ez zuen urik edaten, txarto ikusia zegoelako. Pedro Langa zen orduan bere entrenatzailea, Deban bizi zena, eta astero txuleta-zinta bat ekartzen zion, egunean razioko txuleta bat jan zezan. Eta nire aitaren marka batzuk ez ditu inork gaingitu. Hamasei aldiz izan zen Euskal Herriko txapelduna eta hor daude bere markak, baina nik ikasi dudana da denetik jan behar dela, baina neurrian. Arazo bat badaukat, baina: oso-oso gozozalea naizela; etxetik datorkit.

**X.O.:** Nik ere azukre pixka bat behar dut otorduro. Galdetu dizut nik janariarekin arazoak izan nituelako. Eta ezagutu dut jendea beste kirol batzuetan ere janariarekin oso harreman ona izan ez duena. Nik uste izan nuen barazkiak eta arraina jan behar nituela bakarrik, nire gorputzak kanon baten barruan egon behar zuelako. Nutrizionistak zabaldu zizkidan begiak.

**K.G.:** Oso garrantzitsua iruditzen zaidan zerbait da benetan profesionalak direnen kontsultetara joatea. Eta buruko osasunarekin, berdin.



# Azaroaren 9an burutuko da San Martin azoka, eta egitaraua prest dago jada

Euskal Birusak, herriko hainbat norbanakok, taldek eta erakundek elkarlanean antolatzen duten San Martin azoka ate joka dago, eta jadanik prest dago eguneko egitaraua. Adin eta gustu guztietarako ekintzak izango dira aurten ere, goizetik gauera arte burutuko direnak. Gozatu!

## **11:00**

**Plazan:** Postuak, dantzak, saiheski-pintxoak eta taloak.

**Santiago plazan:** Artisauak.

**Martxoaren 8a plazan:** Abereen eta hegaztien erakusketa.

**Herriko kaleetan barrena:** Artaldearen jaitsiera, Bizkaiko gaiteroak eta Alboka Musika Eskolako trikitalariak.

**Probalekun:** Idi parea.

**Goiko parkean:** Ikastetxeen postuak.

## **12:00**

**San Martin plazan:** Herri-kirolak.

**Euskaldun Berria plazan:** Umeentzako herri-kirolak

**Komentukuatik hasita:** Iruñeko Alde Zaharreko Erraldoien kalejira.

## **13:30**

Sari banaketa postuz postu.

## **14:00**

Artaldearen igoera.

## **19:00**


Kalejira Bizkaiko gaiteroekin.

## **19:45**

Errifa zozketa, Larraintantza eta argazki lehiaketaren sari banaketa plazan.

## **20:00**

Goizargi erromeria plazan.



15:30ean **baba-jan** herrikoia burutuko da Merkatu Plazan, baina tiketak agortuta daude dagoeneko!

Antolatzaileekin **kolaboratu** nahi dutenek (azokaren muntaian edo bukatutakoan jasotzen, talo edo saiheski postuan, errifak saltzen...) jarri harremanetan 943 17 93 50, 688 63 28 74 edo euskalbirusa@gmail.com helbidetan. Animatu!!



**8. Euskaldun Berria plaza**  
Umeentzako herri-kirolak

**6. Goiko parkea**  
Ikastetxeen postuak

**5. Probaleku**  
Idi para

**2. Santiago plaza**  
Artisauak

**3. Komentua kalea**  
Iruñeko Alde Zahar  
Erraldioen kalejira  
abiapuntua

**San Martin  
azokako guneak**

## 7. San Martin plaza

Herri-kirolak

**1. Plaza**  
 Postuak  
 Dantzak  
 Saiheski-pintxoak  
 Taloak  
 Errifa-zozketa  
 Larraindantza  
 Erromeria...

**4. Martxoaren 8a plaza**  
 Abereen eta hegaztien  
 erakusketa

✚ Artaldearen jaitsiera, Bizkaiko  
 gaiteroak, Alboka Musika Eskolako  
 trikitilariak, kalejirak, sari banaketak...

reko  
 ren

# “Hondartza-eskubaloia dinamikoagoa da, eta hareak asko nekatzen du”

Malen Suárez López · Eskubaloi jokalaria



Oso gaztea izan arren, zortzi urte daramatza eskubaloian jokatzen Malen Suárezek (Ermua, 2009). Atezain dihardu Errotabarri klubeko kadeteetan, Bizkaiko Ligan, baina uda honetan bi domina lortu ditu hondartza-eskubaloia disziplinan. Pistako denboraldian murgilduta, Euskadiko eta Espainiako selekzioen kontzentrazioetan eta entrenamenduetan parte hartzen ari da.

Testua **DORLETA VIDAL**

## Igaro berri den uda oparoa izan da zuretzako kirol esparruan...

Bai, bi domina lortu ditut hondartza-eskubaloian. Lehena, urrezkoa, Euskadiko Selekzioarekin irabazi nuen uztailean, La Manga del Mar Menorren (Murztzia) jokatu zen Espainiako txapelketan. Bigarrena, zilarrezkoa, abuztuan lortu nuen, Zarautzko taldearekin jokatu nuen taldeen txapelketan, Cadizen. Oso pozik nago!

## Nola aukeratu zintuzten txapelketa hauetan parte hartzeko?

Iaz, Errotabarri taldeak jakinarazi zigun Euskadiko Selekzioak entrenamendu irekia egingo zuela hondartza-eskubaloirako Sestaon. Hasieran ez nintzen animatu, baina bigarren saioan parte hartu nuen eta udan burutuko zen txapelketarako hautatu ninduten. Valentzian izan zen baina, bi partidu jokatu eta gero, bertan behera geratu zen, oso eguraldi txarra zegoelako. Aurten zuzenean deitu naute txapelketara joateko. Horren ostean, Zarautzko taldeak ere deitu dit haiekin batera Espainiako txapelketan parte hartzeko, taldekako kategorian. Abuztu erdialdean lehiatu ginen, Cadizen, eta bigarren geratu ginen.

## Hondartza-eskubaloia disziplina berria da?

Ez, esango nuke betidanik existitu dela. Kontua da orain, pistan jokatzen duten jokalariek asko hondartzan jokatzen hasi direla udan eta ondorioz, gero eta kirol ezagunagoa da.

## Zeintzuk dira pista-eskubaloia eta hondartza-eskubaloia arteko ezberdintasunak?



Malen Suárez udan lortutako bi dominekin: zilarrezkoa Zarautzko taldearekin, eta urrezkoa Euskadiko Selekzioarekin.

Antzeko jokoa da, baina arauak guztiz ezberdinak dira: posizioak, golak, baloia, jokalekuaren tamaina, taldekideen kopurua... Bestalde, hondartzan jokoa dinamikoagoa da eta, harea dagoenez, gehiago nekatzen du.

**Eguraldiak eragina dauka jokoa?**

Bai, beste batzuk ez bezala, gu oso ondo moldatzen gara euriarekin, adibidez. Andaluziarrek edo murtziarrek, ordea, guk baino hobeto jasaten dute eguzkia eta beroa...

**Izan ere, Andaluziako eta Murtziako selekzioak ziren txapelketa irabazteko aukera gehien zituztenak, ezta?**

Bai, hasiera faseko ligaxkan galdu egin genuen Murtziaren kontra. Bagenekien talde indartsua zela, eta gainera etxean jokatzeko zuten..., baina ez genuen ilusioa galdu. Gero, final laurdenetan Andaluzia hartu genuen mendean, nahiz eta faborittoa izan, eta horrek sekulako poza eman zigun! Finalean Murtzia izan genuen aurrean berriro ere, eta irabazi genuen! **Zer nolako esperientzia izan da txapelketa hauetan parte hartzea?**

Oso polita. Gainera, jende asko ezagutzeko aukera izan dut, eta Selekzioan aspaldi egin nituen lagunak ikusteko ere. Ibilbide honetan ezinbestekoa izan da entrenatzaile eta taldekide guztien laguntza.

**Pistan ere Euskadiko Selekzioarekin jokatzeko duzu?**

Bai, dagoeneko Espainiako bi txapelketetan parte hartu dut Selekzioarekin, baina aurtengo hautatzaile berria



Euskadiko Selekzioak Espainiako Txapelketa irabazi zuen uztailean, La Manga del Mar Menorren (Murtzia). Argazkian, Suárez zutik, eskumatik hasita lehen jokalaria.

dugu, eta jokalaria guztiak ezagutzen ari gaitu. Momentu honetan 24 neska geratzen gara berak egindako lehen hautaketa horretan, eta hortik irtengo da urtarrilean Espainiako Txapelketa jokatu duen 16 laguneko taldea. Ikusiko dugu. Horrez gain, Espainiako Selekzioaren deia jaso nuen iaz, eta hainbat konzentrazio eta entrenamendu egin ditut dagoeneko haiekin. Azkena aurtengo irailean, Granadan.

**Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**

Gustatuko litzaidake eskubaloian jokatzeko jarraitzea, eta ahal bada, Iberdrola Ligako edo Urrezko Ohorezko Mailako talderen batean jokatzeko. Eta kirola, nola ez, ikasketekin uztartzea.

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

**FOTOKOPIAK**  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOA  
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**OSTEOPATIA**  
Pablo Lucena

617 680 156  
info@osteopatialucena.com  
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

**HARATEGIA - URDAITEGIA**

**MIGUEL**

BERTAKO OKELAK

ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBLEKU 3 - 943 170565 ERMUA

Psikologia  
Ongizate pertsonalerako zentroa

**GUZTIOK**

Nahia Rojo Bustindui  
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua  
Hitzorduak: 688 85 18 95

# San Antonio panaderixia



Ogi kontuetan, bestiak beste, barrak, txapatak, basarriko doblauak, ogi-bollo txikixak... Gozo kontuetara jo ezkerro, pastelak, San Blasak, napolitanak, kruasanak, mantekillazko boluak... Irailleko azken egunian itxi dauz atiak hamarkada luzetako jarduerai amaieria emonaz.

Eibarren okin jardun ostian, Adrian Zumelagak 1947 urtian Ermuko San Antonio ermitxa pareko lokala eta goiko etxebizitzia hartu zituan Concha Alberdi emaztiakin. Ogi-errepertotat Adrian ibiltzen zan hiru erroberadun Elektroziklos batekin. Itxurrian bodegian onduan, Baldespina kalian, despatxo txiki bat jarri zeбен eta Zubiaurren beste bat beranduago. Ordurako Arantza Castillo eta Alberto Zumelaga kargutzen ziran panaderixiaz eta 1999an Anaitasuna elkartia sortu zeбен bihargiñekin batera, 2016an langillion esku geratuta jestiño guztia.



**Enter**  
**INFORMÁTICA**  
 SALMENTAK  
 IRAKASKUNTZA  
 ZERBITZU TEKNIKOA  
 VI. Mendeurrena 19, behea  
 943 17 90 37  
 enter@informaticaenter.com

**KARABIXA**  
**KARABIXA KAFETEGIA**  
 Egunero zabalik  
 08:30etik aurrera

**Proba-Leku**  
*Neopaindegia - Estetika*  
 Probaleku 3, 1A  
 Tel.  
**943170542**



JABI VIDAL

## Badator berriro oihuka

*“Udazkena, osteguneko pintxo-potearen orduan, aurreko asteburuan Udalaitez tontorretik gurutzeari desagerrarazi zuen taldearen aldeko brindisa egiten ari ginen; halako batean, Mikel eta biok isilik geratu ginen, atentzioa beste nonbaiten, etxebizitzaren atzeko aldean, urrunean, ikusten zen mendi tontorrean, hain zuzen ere. Egun ilun eta euritsua izanda ere, halako batean eguzkiak mendi haren gailurra argitu zuen, tontorra bakarrik, erlijio ikurrik gabe. Eta besteek berbetan jarraitu bitartean, gu edertasun hark harrapatuta eta liluratuta geratu ginen, gero berriz ilundu zen tontorra. Zuk ere ikusi duzu? galdetu zidan Mikelek, hara begira nengoela konturatuta, eta nik irribarre konplize batekin erantzun nion”.* Ainhoari asko gustatzen zaio udazkena eta beti gogoratuko du udazkeneko une eta tontor magiko hori. Udazkenean Ainhoaren mendi-bueltak

kolore gorrixkak, urrezkoak, okreak, horiak eta laranja bihurtzen dira. Igaro dira “Hiru Txikiak” eta beste mendi lasterketak, eta orain mendira lasaia goateko garaia da.

Udazkenean Ainhoak berriz jantziko ditu txamarrak, jertse potoloak eta bi galtzerdi pare. Ipiniko du nordikoa ohean, jantziko ditu pijama luzeak. Gordeko du eguzkitako krema eta obsesionatuko da kalabaza purearekin. Prestatuko du dilista kilo osoa eta beteko du izozkailua, aterako du San Martineko arropa, lehortuko ditu mendiko botak eta ez dio izotzik botako kafeari. Itzuliko dira txakurrak hondartzetara, itzuliko dira turistak haien etxeetara. Erretzailak bakarrik egongo dira terrazetan. Iluntzeetan berriz igaroko dira bikoteak, paseariak eta korrikalariak “Behobia” prestatzen. Bi aldiz pentsatuko du leihoa noiz zabaldu, izarak noiz aldatu eta iluntsenti ederrak oparituko dizkio zeruak.

Udazkenean igaroko zara nobelak irakurtzetik ipuin-liburuak irakurtzera. Errukituko zara aurtengo udan egin ez duzun horregatik guztiagatik. Azken musuak zirela jakin gabe emandako musu erdiengatik. Azken izozkia zela jakin gabe aukeratu zenuen banilla izozkiarengatik. Azken hondartza eguna bainatzeko aprobeztatu ez izanagatik. Dantza egin ez zenuen gau hartan dantza egin ez izanagatik. Azken eguzki egun epelean praka luzeak jantzi izanagatik. Okurrizten zaizun edozein txikikeriarengatik.

Udazkeneko mendi-bueltak zoragarriak dira, koloretako hostoz egindako alfonbrak basoetako bideetan zanpatuz, zirrin-zarran pauso bakoitzaren soinua salatario aireratuz eta zuhaitzek hostoak uzten dituzten gisan, guk ere utzi beharko genituzke hainbeste lotzen gaituzten ideia, erlazio eta, batez ere, traste eta bestelako kargak. Beharrezkoak ez diren kargak arintzeko garaia da. Azaroak 25 helduko da eta La Pollaren abestien moda ez da pasako: *“Ya llega otra vez gritando, amenaza con matarme, llamar a la policía, denunciarlo a la justicia, que lo metan en la cárcel, volverá a intentar matarme, la repulsa ciudadana, el apoyo feminista, 1.200 periodistas... Me he comprado una pistola, ya llega otra vez gritando”.*

Ba hori, gozatu udazkena!

**"Udazkenean, Ainhoaren mendi-bueltak kolore gorrixkak, urrezkoak, okreak, horiak eta laranja bihurtzen dira"**

## MIKEL MADARIETA

Ermuan jaioa duela 29 urte. Anaia bikia du. Produktu diseinu ingeniarietza ikasi arren, teknologia irakasle hasi da aurten. Pazientzia handiko gizona, futbolzalea eta parrandazalea. Argazkilaritza dauka gustuko eta drogeteniturrri.eus webguneak antolatutako argazki lehiaketa irabazi berri du.

Testua **DORLETA VIDAL**

### **Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?**

Ikaskide eta lagunekin futbolekin jokatzen egoten nintzela Ikastolako patioan.

### **Umetan zer izan nahi zenuen?**

Ez daukat oso argi, baina anaiak eta biok paleontologoak izan nahi genuen. Berak bide horretatik jarraitu du, baina nik ez.

### **Bikien artean lotura berezia dagoela esaten dute. Zuk ere sumatzen duzu?**

Bai, baina esango nuke bizitza osoa batera egin izanaren ondorioa dela, eta ez lotura berezia dugulako. Gainera, antza handia daukagu fisikoki, antzeko gustuak...

### **Zer ikasi zenuen?**

Produktu Diseinu Ingeniaritza ikasi nuen Arrasaten, eta Industria Ingeniaritza Masterra egin nuen gero. Bost urtez egon nintzen enpresa batean lanean, baina ia irakasle izateko masterra egin nuen, eta hilabete daramat teknologia irakasle Institutu batean. Momentuz oso gustura nago.

### **Zer da lan horretaz gehien estimatzen duzuna?**

Alde soziala, ikasleekin harreman zuzena izatea.

### **Zer egiten duzu aisialdian?**

Argazkilaritza daukat gustuko, bideojokoak, lagunekin irten, parranda... Inauteriak ere izugarri gustatzen zaizkit! Kuadrillan mozorrotzen gara, eta behin baino gehiagotan irabazi dugu herriko mozorro lehiaketa.

### **Zenbat denbora daramazu argazkilaritzan?**

Betidanik gustatu izan zait paisaien argazkiak mugikorrarekin ateratzea, baina pandemia garaian, amak noiz edo noiz esanda, reflex kamera erosi nuen eta serio hartu nuen: tutorialak ikusi, ikastaroren bat egin, argazkilari ezagunen lanak ikertu...

### **Mugikorrarekin ezin dira argazki onak egin?**

Bai, esango nuke argazki on bat ez dela ekipo on baten emaitza, baizik eta atzean dagoen formazioarena: argazkiaren diseinua, konposizioa...

### **Zure lanen artean, paisaiak dira nagusi oraindik ere?**

Bai, eta paisaiak kirolarekin uztartzen ditut askotan: Hiru Txikiak, *trail runninga*, txirrindularitza...

### **Zenbat ekipo dituzu?**



Bi urte eman nituen reflex amateur batekin, eta orain dela urte eta erdi kamera eta objektibo profesionalak erosi nituen. Batzuetan bi kamerak eramaten ditut.

### **Zure argazki guztietatik bat aukeratu beharko bazenu...**

2022ko irailean Glen Coe haranean (Eskozia) atera nuena.

### **Argazkiak editatzen dituzu?**

Bai, lan garrantzitsua dela iruditzen zait. Kolorea eta argia ukitzen ditut batez ere, baina ezer asmatu gabe.

### **Drogeteniturrrik antolatutako argazki lehiaketa irabazi berri duzu. Lehiaketetan ibiltzen zara?**

Orain arte ez, baina datorren urtera begira agian lehiaketa-egutegi bat egingo dut, lana planifikatzeko.

### **Bideojokozalea zara...**

Bai, txikia nintzenean aitak erakutsi zidan Erdi Aroko estrategia joko batera jolasten, eta gero eta gutxiago jolasten dudana arren, oraindik ere banabil.

### **Kiroliek praktikatzen duzu?**

Betidanik gustatu izan zait mendian ibiltzea, baina



gaur egun paseoan noa, lesio bat izan nuelako.

### **Kirolen bat jarraitzen duzu?**

Futbola asko gustatzen zait, batez ere Ingalaterrako futbola eta Athletic. Askotan joan naiz lagunekin Ingalaterrara futbol partiduak ikustera.

### **Gustuko duzu bidaiatzea?**

Asko, eta leku askotan egon naiz, baina Europatik irten barik, arantzatxo hori daukat. Hego Amerikara joan nahiko nuke: argazki-kamerarekin banoa, Patagonia aldera (Txile zein Argentina); bestela, Kolonbia edo Mexiko.

### **Telebistan...**

... pelikulak eta telesailak bakarrik ikusten ditut.

### **Irratia?**

Lanerako bidean Euskadi Irratia entzuten dut: albisteak, solasaldiak, zinearen inguruko saioak...

### **Musika gustatzen zaizu?**

Batzuetan isiltasuna nahiago dut, baina gustuko dut punk-rock amerikarra: NOFX, Bad Religion, Black Dragon... aspaldiko taldeak. Iaz The Baboon Show suediarrek ikusi nituen Iruñean eta asko gustatu zitzaidan,

**"Europako herrialde askotan egon naiz, eta orain Hego Amerikara joan nahiko nuke"**

**"Ez zait gustatzen egun osoa alde batik bestera ematea, lasai egoteko momentu bat behar dut"**

eta ia urtero Mondra & Roll oi! jaialdira joaten naiz.

### **Biziorik?**

Juerga eta alkohola.

### **Zure bertute eta akatsa bana?**

Pazientzia handia dut, bistakoa da. Akatsari dagokionez, besteek esandakoari punta ateratzen diot beti, nahiz eta adinarekin hobetzen joan naizen. Burugogorra ere banaiz.

### **Badago egunero egiten duzun zerbait?**

Egunean momentu bat behar dut niretzat, lasai egoteko: ordenagailu aurrean, esaterako. Ez zait gustatzen egun osoa alde batetik bestera ematea.

### **Lagunekin, nahiago duzu entzun ala hitz egin?**

Biak, ez nuke esango oso hitzuna naizenik, baina ez naiz pasiboa ezta ere.

### **Zerk eragiten dizu barrea?**

Txiste zentzugabeak asko gustatzen zaizkit.

### **Eta zerk haserretu?**

Oso gauza gutxik, nahiz eta batzuetan haserretzeko arrazoiak izan.

### **Zerbait egin ez izanaren pena daukazu?**

Ikus-entzunezkoak ikasi ez izana eta errugbia aurretik probatu ez izana, baina ez naiz damutzen egindakoaz.

### **Hartu duzun erabakirik zailena?**

Aurreko lana lagatzea irakasle izateko.

### **Iragana edo etorkizuna ikusi nahiko zenuke?**

Iragana, historiak (Erdi Aroak bereziki) jakin-mina sortzen dit.

### **Zein albiste irakurri nahiko zenuke?**

Gai potoiloak alde batera utzita, gustatuko litzaidake entzutea berriro ere aurora borealak ikusiko direla Euskal Herrian, argazkia ateratzeko. Aurrekoan ez nuen horren berri garaiz izan-eta!



**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOIA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44




**AMALUR**  
FISIOTERAPIA

688 61 98 96  
zeharkale 12 bajo  
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33




**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opaniak...]

www.quetzalmoda.com  
Zubiaurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065

# Eguzki-energia eskura

EGUZKI-ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRI NAGUSIENETAKO DA

Eguzki-energiak eta energia-iturri berriztagarriek funtsezko zeregina betetzen dute klima-aldaketaren aurkako borrokan eta energia-sistema iraunkorrago baterako trantsizioan. Eguzki-plakek, bereziki, bilakaera teknologiko nabarmena izan dute, eta efizienteagoak eta eskuragarriagoak bihurtu dira, bai etxerako, bai industiarako. Horri esker, pertsona eta erakunde askok murriztu egin dute sare elektriko tradizionaletikiko mendekotasuna, eta, hala, murriztu egin dituzte haien energia-kostuak eta karbono-aztarna.

Testuinguru horretan, gero eta ohikoagoak dira eguzki-energiaren funtzionamenduari, haren onurei, kostuei eta instalazioaren bideragarritasunari buruzko galderak. Hona horietako batzuek:

## Zenbat energia sor dezake eguzki-plaken instalazio batek?

Energia-kantitatea sistemaren tamainaren, kokapenaren, panelen inklinazioaren eta instalazioak jasotzen duen eguzki-argi kantitatearen arabera da. 1 kW-ko eguzki-panel tipiko batek, Euskal Autonomia Erkidegoan 950 eta 1.400 kilowatt orduko (kWh) artean sor ditzake urtean, kokatuta dagoen eskualdearen arabera.



Plaka-fotovoltaikoak Itziarko Kanala jatetxean. DKT

## Zer alde dago energia fotovoltaikoaren eta termikoaren artean?

Eguzkiaren energia baliatzeko sistema nagusiak bi dira: fotovoltaikoa eta termikoa. Lehenengo sistemak eguzki-plaken bitartez eguzkiaren energia fotovoltaikoa jasotzen du eta elektrizitate bihurtzen. Bigarren sistemak, berriz, urez beteta dauden hodi batzuen bitartez, eguzkiaren energia termikoa (beroa) jasotzen du eta energia horrek ura berotzen du eta kasu batzuetan lurruna

sortuz, turbina bat mugitu eta elektrizitatea sortu ere bai.

## Eguzki-energia erabil daiteke gauean edo lainotuta dagoenean?

Eguzki-plakek eguzki-argi zuzena behar dute elektrizitatea sortzeko. Hala ere, energia biltegitratzeko sistemek, bateriek adibidez, egunean zehar sortutako elektrizitatea gauez edo egun lainotsuetan erabiltzeko biltegitratzea ahalbidetzen dute.

## Zenbat denborako balio-bizitza dute eguzki-plakek?

Eguzki-plaken balio-bizitza 25 eta 30 urte bitartekoa da. Denbora horretan zehar, elektrizitatea sortzeko gaitasuna apur bat murriztu daiteke, baina modu eraginkorrean funtzionatzen jarraitu ohi dute.

## EGUZKI-PLAKEN BALIO-BIZITZA ERAGINKORRA 25 ETA 30 URTE BITARTEKOA DA

# "Energiaren %20a eskuratzen dugu eguzki-plaketatik"

**ALBERTO SANCHEZ ETA MARIAN GARCIA** KANALA JATETXEA

Duela bi hilabete, plaka-fotovoltaikoak ezarri dituzte Itziarko Kanala jatetxean. Guztira, 38 plaka ezarri dituzte, teiltatuaren alde bietan.

## **Zein izan da arrazoia eguzki-plakak ezartzeko?**

Jatetxean argindar asko kontsumitzen dugu, batez ere, labeetan eta garbiketara lerroan. Duela hilabete batzuk, Ukrainan gerra hasi ostean, faktura handiak iritsi zitzaizkigun, bai argindarrarenak eta baita gasarenak ere. Orduan, jarri ginen pentsatzen lehenago edo beranduago bilatu beharko genuela energia iturri berriztagarriren bat. Eta horretan geundela, iritsi zitzaigun proposamena Debegesaren bitartez. Hainbat sistema aztertu eta gero, aerotermia, geotermia eta abar, ikusi genuen eguzki-plakak inbertsioa ez zela horrenbestekoa eta gainera bazirela laguntzak Europako Next Generation programaren eskutik. Hori ikusita, erabaki genuen aurrera egitea.

## **Zenbatekoa izan da inbertsioa?**

24.000 euro ingurukoa. Laguntzetatik, berriz, 5.000 euro inguru jasoko ditugu eta aurreikusten duguna da zazpi bat urtean inbertsioa amortizatuta izatea eta hamar urtetik aurrera irabaziren bat izatea. Izan ere, momentu batzuetan, argindar soberakina sortzen da eta soberakin hori argindar sare orokorrera saltzen dugu, gure kasuan, Iberdrolaren

bitartez. Hortik ere diru kopuru bat jasoko dugu baina hori oraindik ez dakigu zenbat izango den zehazki, prezioa negoziatu barik daukagu eta.

## **Nolakoa izan da prozesua?**

Enpresa batekin jarri ginen harremanetan eta beraien egin

Momentu honetan, 38 eguzki-plaka (15,64 kWp) eta haiei esker, jatetxean kontsumitzen dugun argindarraren %20a eskuratzen dugu. Sukaldeko kamarak eta elektrogailu gehienek plaketatik datorren indarrarekin funtzionatzen dute.



Alberto Sanchez eta Marian Garcia Kanala jatetxeko arduradunak. DKT

ziguten estudio guztia, kalkulatu zuten zenbateko aurrezpena lortuko genuen eta abar. Ondoren, instalazioa ere eurek egin dute. Adibidez, guk, kontsumo handia daukagunez ez dugu akumulatorerik eta halakorik ezarri behar izan, plakek sortzen duten guztia kontsumitzen dugulako.

## **Momentu honetan, zenbat indar eskuratzen duzue plaka-fotovoltaikoetatik?**

"EGUZKI-PLAKEN INBERTSIOA EZ DA HORRENBESTEKOA ETA BADIRA LAGUNTZAK"

## **Zein balorazio egiten duzue?**

Oso ona. Alderdi ekonomikoaz gain, guk nahi dugu kontsumitzen dugun energia berriztagarria izatea, ingurumenari ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko. Gustura gaude eman dugun pausoarekin.



**Energia  
bulego birtuala**

*energia.debegesa.es  
agenda2030@debegesa.es  
943 82 01 10.*

## 1934

E R M U A

Eitzagan ateratako familiarteko erretratuan, ezkerretik eskumara daude goiko ilaran Santi Mallagarai, Valerio Gandiaga, Constan eta Javier Mallagarai eta eskumarengo Valentin Okariz. Erdian jezarrita Francisca Mantxobas, Hipolita Mallagarai, Maria Aranburu altzoan Victor Mallagarai semea duela, Victor Mallagarai, Rosina Mallagarai altzoan Miren Okariz alaba hartuta eta Rosario Gandiaga. Barrenean jezarrita, Jose Luis eta Javier Mallagarai, eta Mari Carmen eta Alejandro Gandiaga.



## 1966

M A L L A B I A

Eltzubiko Itziar Salaberria eta Bittor Alberdi 1966ko urriaren 22an ezkondu ziren Etxebarrin. Argazki hau egun horretakoa da, eta Itziar eta Bittor ageri dira bertan gonbidatuekin. Hauek dira argazkian agertzen diren batzuk: Bittor Gandiaga, Valentina Gallastegi, Antonio (?), Florencio Alberdi, Katalina Iturriaga, Gregori Alberdi, Eugenio Gandiaga, Juliana

Aranburu, Donato Agirre, Balbina Milikua, Boni Garitagoitia, Pakita (?), Rufina Salaberria, Andres Muguruza, Jose Mari Andonegi, Marcelino Albisu, Maria Jesus Salaberria, Dolores Albisu, Mari Carmen Gandiaga, Patxi Salaberria, Josefa Etxabe, Juanita Alberdi, Jose Ignacio Salaberria, Antonia Salaberria, Eusebio Maguregi, Maria Luisa Salaberria, Sagrario Albisu, Blanca Zuazubiskar, Jose Mari Zuazubiskar, Juanita Ugarte, Claudia Alberdi, Simon Salaberria, Juana Josefa Arana, Bernardo Alberdi, Felix "Txanbolin", Paskual Mugerza, Benita Salaberria, Begoña Gisasola, Rafael (?), Leon Zelaieta eta Felisa Arana.

BAR  
JUBILETXE  
ERMUA

Hemen eskatu!

LEIRE RASCO  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)

## IRAGARKI LABURRAK

Neska eskaintzen da etxeak edo peorak garbitzeko, eta pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 686 52 0473, Maria.

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. ☎ 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. ☎ 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 683 655.



### **Azaroaren 20an**

Zorionak **Maialen** zure 8. urtebetetzean. Muxu asko familia osoaren partez. Ondo pasa zure eguna.



### **Urriaren 11n**

Zorionak **Paúl!** Oso ondo pasa zure 4. urtebetetzean! Patxo handi bat aita, ama eta Guss-en partez. Segi horrela txapeldun :)



### **Azaroaren 9an**

Zorionak **Igor** zure 9. urtebetetzean. Besarkada handiak Ermuko amama eta aitxixaren partez.



### **Urriaren 21ean**

Zorionak amama **Inma**, Lier, Lander eta Noraren partez. Egun polita pasa dezazula. Mosu handi bat.



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitritxa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00  
albokamusikaeskola@hotmail.com

**Infreñu  
Taberna**



Kardenal Orbe plaz  
943 174584  
www.infretaberna.com



**SEHIGA**

PROTECCION LABORAL  
PLAN BARRERAKO  
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

ileapaindegia

**Silvia**  
peluqueria

Asteartetik ostiralera  
00-12:00 15:00-19:00  
arunbata 8:30-13:00





943 170474

688819336

**ZINEA**

**Hilaren 2tik 4ra.**  
**Hilaren 9tik 11ra.**  
**Hilaren 16tik 18ra.**  
**Hilaren 23tik 25era.**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat ordutegi.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 7.**  
**Hilak 14.**  
**Hilak 21.**  
**Hilak 28.**  
**Hilak 30.**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian. 20:30ean.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
 Laguntzaile: Mudo-drogoz  
 cinematografo.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 2.**  
**Hilak 9.**  
**Hilak 16.**  
**Hilak 23.**  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Ermua Antzokian. 17:00etan.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ANTZERKIA**

**Hilak 1:**  
 Antzerkia: "Llévame a Benidorm", Arteyo Produzkoien eskutik.

20:30ean. Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 8:**  
 Antzerkia: "Passport", Yllana taldearen eskutik.  
 20:30ean. Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 12 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 29:**  
 Antzerkia: "Miñan", Artedrama konpainiaren eskutik.  
 20:30ean. Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**MUSIKA**

**Hilak 15:**  
 Kontzertua: Idoia.  
 20:30ean. Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 16:**  
 Blues kontzertua: Xime Monzón Blues Band.  
 20:00etan. Lobiano Kultur-gunean. Sarrera: 10 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 20:**  
 Zezilia Deunaren kalejira.  
 18:30ean. Antolatzailea: Alboka Musika Eskola.  
**Hilak 22:**  
 Zezilia Deunaren jaialdia.  
 20:30ean. Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 3 €. Antolatzailea: Alboka Musika Eskola eta Txindurri taldea.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 2:**  
 Ipuin-kontaketa ingelesez.  
 17:30ean.  
 Lobiano Kultur-gunean.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 23:**  
 Antzerkia: "Kutxartean", Paraiso Teatroaren eskutik.  
 17:00etan. Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 4 €.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 29:**  
 Haurrentzako jolasak: Hiri Hezitzailen Nazioarteko Eguna. 17:00etan Orbe Kardinalaren plazan.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.  
**Hilak 30:**  
 Ipuin-kontaketa. 17:30ean.  
 Lobiano Kultur-gunean.  
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 4tik 10era:**  
 Margoak: Kulturatik Genozidioa Stop. Kultur Sortzaileak Palestinarekin.  
 Lobiano Kultur-gunean.  
 Antolatzailea: Komite internazionalistak- Ermua Palestinarekin ekimena.  
**Hilaren 11tik 17era:**  
 Kartelak: Zipriztintzen, 15 urte. Lobiano Kultur-gunean.  
 Antolatzailea: Zipriztintzen.

**Hilaren 18tik 1era:**  
 Argazki erakusketa: "Leher-tu baten memoriak". Danie-la Agudeloren lanak. Lobiano Kultur-gunean. Antolatzailea: Ermuko Udala

Ordutegia:  
 Lanegunetan, 18:00etatik 20:00etara.  
 Asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 9:**  
 San Martin azoka: Hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan eta inguruko guneean.  
 Antolatzailea: Euskal Birusa.  
**Hilak 11:**  
 Gaztañerre: Gaztainen banaketa eta musika giroa. 19:00etatik aurrera.  
 Antolatzailea: Kaltxango AEK Euskaltea.  
**Hilak 16:**  
 Magostos: Gaztainen banaketa eta musika giroa. 11:00etatik aurrera.  
 Galiziako Zentroan. Antolatzailea: Galiziako kultur zentroa.

Patxi López



**TXINDURRI  
 TALDEA  
 Tokian  
 tokiko**

**Otro Plan**  
**como en casa**  
 Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan  
 espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 - ERMUA  
 943 172 412

**PRO**  
*arraindegia*




**ITSASKIAK  
 ARRAIN FRESKOAK  
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
 943 17 16 96  
 ERMUA

# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
**ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA**  
**LUIS VALLE**

*Valle*  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56

Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
**TOLDOS Y PERSIANAS**

- Toldoak
- Ostalarizarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Seguritasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eitxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixu 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

**ERROTULAZIOA**  
**ROTEK**  
**R Ó T U L O S**

Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak  
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak  
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36  
[www.rotekrotulos.com](http://www.rotekrotulos.com)

**ROTEK**  
**LED PANTAILAK**

**ITURGINTZA**  
**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**

**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
[info@palaciosfontaneria.com](mailto:info@palaciosfontaneria.com)  
[www.palaciosfontaneria.com](http://www.palaciosfontaneria.com)

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

**ELEKTRIZITATEA**

**ELECTRICIDAD**  
**BETA**<sup>CB</sup>  
**ARGIZTAPENA**  
**ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea  
ERMUA

943 17 65 25  
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

# ERMUAN, XXXIV. SAN MARTIN AZOKA



Euskal  
Birusa  
Elkarteak

AZAROAREN 9an  
LARUNBATA  
Egitarau osoa  
17. orrian!



ANTOLATZAILEA



Euskal  
Birusa  
Elkarteak

LAGUNTZAILEAK



MUSIKAREN ETXEA



BABESLEAK



Euzko Musikaren  
Etxea  
Euzko Musikaren  
Etxea



Bizkaia  
Euzko Musikaren  
Etxea



MONROE  
Euzko Musikaren  
Etxea